



Kultura
2023UDIN0001

DOLMENEN IBILBIDEA SUSTATZEKO EKINTZAK DIRUZ LAGUNTZEKO

Elgoibarren, bi mila eta hogeita hiruko apirilaren 26an

BILDURIK

Alde batetik, **ANE BEITIA ARRIOLA** andrea, Elgoibarko UDALEKO alkatea, beronen izenean eta ordeztu behar bezala ahalmenak dagoena.

Eta bestetik, **JUAN ANGEL BALBAS EGEA** jauna, 15.390.185-V NAN zenbakiduna, adinez nagusia, DEBEGESAren izenean, IFZ A-20098349 zenbakidun eta horren ordezkari gisa.

Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta honako hau

AZALTZEN DUTE:

ELGOIBARKO UDALAK, Karakateko Dolmenen ibilbidea bultzatu nahirik, ekintzak antolatzeke laguntza eman nahi duela.

Hortaz, DEBEGESAK, Karakateko Dolmenen ibilbidea sustatzeko egiten duen ahaleginari laguntzeko, honako hitzarmen hau sinatzen dute jarraian zehaztuko diren baldintzen arabera:

BALDINTZAK

Lehenengoa: Hitzarmen honen xedea da DEBEGESAK, 2023. ekitaldian, Karakateko Dolmenen ibilbidea gauzatzeko burutuko dituen ekintzak bideratzeko UDALAK emango dituen dirulaguntzak arautzea.

Bigarrena: Hitzarmen honen bitartez, dirulaguntza emango dio ELGOIBARKO UDALAK (aurrerantzean, UDALA) DEBEGESAri ondoren zehaztuko diren ekintzak bideratu ahal izateko. DEBEGESAK, berriz, hitz ematen du bere egitasmoa hitzarmen honetan jasotakoaren arabera burutuko duela.



Kultura
2023UDIN0001

Hirugarrena: Hona hemen UDALAK diruz lagunduko duen ekintza edo jarduera:

- ❖ Karakateko Dolmenen ibilbidea sustatzea.

Laugarrena: Dirulaguntza hauek UDALAK 2023. urterako indarrean duen aurrekontuko I 0205.417.334.00.01 2023 (180) zenbakidun partidaren kontura emango dira.

Bosgarrena: UDALAK, 2023 urtean, 7.000,00€ euroko dirulaguntza emango dio DEBEGESAri, Karakateko Dolmenen ibilbidea sustatzeko ekintzak burutzeko.

Seigarrena: UDALAK epe batean ordainduko dio dirulaguntza DEBEGESAri, Udaleko kontu-hartzaileak dagokion txostena egin ondoren.

DEBEGESAk eskumena duen Udaleko organoaren aurrean egiaztatu egin beharko du diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak egin dituela, eta emandako zenbateko osoa erabili duela jarduerak edo proiektuak egiteko. Horretarako, ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko ditu Kultura Sailean, 2024ko urtarrilaren 12a baino lehen. Egun hori larunbata edo jai eguna bada, zurieta aurkezteko epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

- Jardueraren edo programaren garapena azaltzeko oroitidazkia, genero ikuspegia txertaturik, hau da, neska-mutilen egoera ezberdinak, baldintzak, nahiak eta beharrak kontuan hartzea, berdintasunerako ekintza eta helburu zehatzak txertatuz.
- Diru-sarreraren eta gastuen behin betiko zerrenda, eta hasieran aurkeztutako aurrekontuaren eta behin betikoaren arteko aldearen arrazoiak.
- Egindako gastua egiaztatuko duten fakturak. Alde horretatik, onartezinak izango dira lege ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten fakturak.
- Programa egiteko prestatzen dituzten liburuxken, kartelen, argazkien, argitalpenen, ikus-entzunezko materialen, material informatikoen eta beste edozein dokumentu grafikoren ale bat gutxienez. Publizitaterako materialak argi ikusteko moduan adierazi beharko du, Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela jarduera hori; eta horretarako, erakundearen logotipoa txertatu beharko da. Udalak emakida jakinarazi ondoren sortzen diren jardueretan eta materialetan bete beharko da betebeharrak hori.
- Aitorpen erantzule bat dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren II. artikuluan dirulaguntzen onuradun izateko debekua ezartzen duten kausaren batean sartuta ez dagoela egiaztatzeko.
- Zinpeko aitorpena. Bertan adierazi egin beharko dira beste erakunde edo organismo batzuei eskatutako dirulaguntzak edo dagoeneko emandako gainerako dirulaguntzak.



Kultura
2023UDIN0001

Elgoibarko Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak egingo ditu "DOLMENEN IBILBIDEA SUSTATZEKO EKINTZAK" egitasmoa burutzen duen DEBEGESArentzat. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria umiaren Ieko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezami beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administraziori emandakoak. Era berean, 40/2015 Legearen 155. Artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren haritik, Elgoibarko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu hitzarmen honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- GIZARTE SEGURANTZAK: Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- ALDUNDIAK: Foru Ogasunetikiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- ELGOIBARKO UDALAK: Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Zazpigarrena: Hitzarmen hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Zortzigarrena: DEBEGESAK, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak izango ditu:

- ❖ Dirulaguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du.
- ❖ Hitzarmenean aurreikusitako egitasmoa osotasunean gauzatu beharko du.
- ❖ DEBEGESAK eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du, laguntzaren xedearn fiskalizazio-funtzioak betetze aldera.
- ❖ Era berean, hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein pribaturen baten dirulaguntzak jaso badira, DEBEGESAK horren berri eman beharko dio UDALARI.



Kultura
2023UDIN0001

- ❖ Antolatzen diren jarduera guztietan kontuan izango dira euskararen lehentasunezko erabilera, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, eta inklusioa eta integrazioa.
- ❖ Euskararen erabilera bermatu eta sustatuko du, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak bideratuko ditu.

Bederatzigarrena: Hitzamen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada, hitzamen hau bertan behera geldituko da.

Horretaz gain, DEBEGESAri dirulaguntza osoa edo dirulaguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio; horretara heldu baino lehen, interesatuari entzunaldia egiteko aukera eskainiko zaio, eta hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzultzeko erabakia hartuko da.

Ondoren aipatuko diren kasuak izango dira oinarriak bete ez izanaren arrazoi. Hori dela-eta, dirulaguntza kentzeko edo, premiazko bidez, dirulaguntza itzularazteko arrazoi izango dira:

- Eskaeraren datuetan gezurrak sartzea.
- Dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzea.
- Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.
- Dirulaguntza eman den xederako ez erabiltzea.
- Oinari hauetan ezarritako betebeharrak, edo hala badagokio, emakida egintzan ezartzen direnak ez betetzea.
- Beste edozein xedapenen bidez oro har ezarritako betebeharrak guztiak ez betetzea.
- Indarrean dagoen lege araudi guztia ez betetzea.

Hamargarrena: Hitzamen honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

Hamaikagarrena: Elgoibarko Udaleko Kultura sailak izango du hitzarmenaren betetze mailari dagokion jarraipena egiteko ardura. Kultura sailak, besteak beste, honako hauek izango ditu kontuan, hitzarmenaren jarraipena egin ahal izateko:

- ❖ Hitzamen honetan ezarri diren betebeharrak bete direla egiaztatzea.
- ❖ Dirulaguntza eman den xederako erabili dela egiaztatzea.
- ❖ Aurkeztu diren agiriak zein egindako gastuak justifikatzeko ordainagiriak benetakoak direla egiaztatzea.

Hamabigarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Beraz hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak nahiz ebazpenaren ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraiki.

Hitzarmen honetan berriaz zehaztu ez diren kasuetarako, Elgoibarko Udalaren eta Bere



Kultura
2023UDIN0001

Ardurapeko Autonomiadun Erakundeen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Nagusia aplikatuko da. Halaber, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra izango da kontuan, baita Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 legea ere.

Hamahirugarrena: DEBEGESA, hitzarmen honen bidez zehazten diren dirulaguntzen onuradun den aldetik, UDALAK eskaintzen dion babesaren berri eman beharko du, hitzarmen honen bitartez bideratzen diren ekintzen kasuan.

Eta bi alderdiok, ados daudela eta hitzarmenean jasotako guztia onartzen dutela adierazteko, hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte, goiburuan jasotako toki-egunetan:

Ane Beitia Arriola
Elgoibarko Udaleko alkatea

Juan Angel Balbas Egea
DEBEGESA

Sinatzailea/k	Hemitartasun Batzordeburua BLANCA LARRAÑAGA IRIONDO DEBEGESA	
Kodea	HI23/0038	Udala Elgoibar
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/100/AAAASD4XM.TBCK	
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen baliotasuna egiaztatzeko ondorengo webgunean sar zaitetz edo QR irudia irakur ezazu.		

